

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, LAUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KATEGORIAN, ARGITALPENAK ETA ARTE GRAFIKOAK ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

AKATSEN ZUZENKETA

Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzei buruzko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoek 4.3 puntuak honako hau ezartzen du: "**Gehienez 1,50 punturekin baloratuko dira, honako baremo honen arabera:** – Frantsesa, ingelesa edo alemana egiaztatzeko B2 mailako edo goragoko tituluak edo ziurtagiriak: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko. – Frantsesa, ingelesa edo alemana egiaztatzeko B1 mailako tituluak edo ziurtagiriak. Europakoa: 0,5 puntu Frantsesa, Ingelesa edo Alemana egiaztatzeko Europako Marko Bateratuko A2 mailako titulu edo ziurtagiri bakoitzeko: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko, kontuan hartuko da EHUKo Errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Ebazpena, ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetasunei buruzkoa edo hura ordeztzen duen araudia"

Hala ere, akats bat antzeman da programa informatikoan, eta gehieneko puntuazio hori 1 puntukoa izan da. Ondorioz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluaen arabera, "Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak." epaimahai honek honako hau erabaki du:

LEHENENGOA. - Aplikazio informatikoko akatsa zuzentzea, Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak gehienez 1,50 punturekin balora daitezen, aztertutako oinarri espezifikoan ezarritako baremoaren arabera.

BIGARRENA. - Behin-behineko merezimenduen zerrenda berriak argitaratzea, UPV/EHUKo enplegu-atarian dagokion iragarkiarekin (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/espanol/generico_login.jsp?prcs=265), behin-behineko balorazio hori kontsultatzeko..

HIRUGARRENA. - Hamar (10) egun balioduneko epe berria zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioa idatzi bidez egin beharko da, idatzia UPV/EHUn horretarako zehaztuta dauden erregistroetan aurkeztuta, edo 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan zehaztutako bideen bidez aurkeztuta. Edozelan ere, kontuan hartu beharko da aipatutako legeko azken xedapenetatik zazpigarrenean zehaztutakoa, hain zuzen ere, erregistro elektronikoei buruzko lege xedapenak bi urteren buruan sartuko direla indarrean.

Leioa, 2021eko urtarrilaren 29a

Jesús Moro de Arriba
Epaimahaiko idazkaria